

Galdera

Suelo radiante: nola eman euskaraz, 'zoru erradiatzailea' edo 'zoru bero-emailea'?

Erantzuna

Biak dira zuzenak: '**zoru bero-emailea**' / 'zoru erradiatzailea'

1/ [Euskalterm](#) terminologia-banku publikoak biak jasotzen ditu. Baina kontuan hartu behar da ponderazio-marka hauek darabiltzala Terminologia Batzordeak:

- 0 Baztertu beharreko terminoa (Terminologia Batzordeak onartzen ez duena)
- 3 Termino onartua (baina ez lehenetsia, beste bat gomendatzen delako)
- 4 Termino behin-behinean normalizatua/gomendatua (Terminologia Batzordearen onespeneraren zain)
- 4 **Eu** Termino normalizatua/gomendatu

Beraz, '**zoru bero-emailea**' terminoa lehenesten du, 4 **Eu** ponderazio-marka ematen baitio; termino normalizatua eta gomendatua da, alegia.

'zoru erradiatzailea' terminoari, berriz, 3 ematen dio, hau da, termino onartua da, baina ez lehenetsia, beste bat gomendatzen delako.

2/ Bi sarrera hauetan aurkitu dugu '**zoru bero-emailea**' terminoa:

eu **zoru bero-emaile** bidezko berokuntza ⁽⁴⁾ **Eu**

zoru erradiatzaile bidezko berokuntza ⁽³⁾

Merkataritza - Iturgintza - Instalazioak

es calefacción por suelo radiante

fr chauffage au sol rayonnant

en radiant floor heating

underfloor heating

eu **zoru bero-emaile**

zoru erradiatzaile

Definizioa: Ur beroaren edo erresistentzia elektrikoaren bidez berotzen den zorua.

Arkitektura, Eraikuntza eta Hirigintza - Instalazioak

es suelo radiante

fr plancher chauffant

en heating floor